

GAZTEDI PLANAREN DOAKO ISTRIPU-ASEGURUAREN POLIZAREN BALDINTZEN LABURPENA

KUTXABANK SAK MAPFRE VIDA Giza Bizitzarekin loturiko Aseguru eta Berraseguruen Sozietate Anonimoarekin kontratatu duen istripu-aseguruen 055-1980019878 zenbakidun Polizaren baldintza orokor, zehatz eta berezien arabera jaulki da.

ASEGURUAREN XEDEA

Aseguruaren xedea bermaturiko istripu baten ondorioz gertatzen den HERIOTZA arriskua bermatzea da, berehala edo ezbeharrak gertatu eta hurrengo bi urteren buruan.

Ondorio hauetarako, jatorri bortitza, bat-batekoa, kanpokoa eta asegurudunaren asmoarekin zerikusirik ez duen lesioari esaten zaio istripua.

Miokardio-infartuak eta bihotz-hutsegiteak ere bere gain hartzen ditu aseguruak, lan-administrazioako agintari eskudunak laneko istripuzat jotzen dituen, eta Asegurudunaren HERIOTZA ekartzen badute betiere. Aseguruak, halaber, edozein zilindro-bolumeneko ziklomotor eta motozikletak erabiltzeagatik eta zaletu gisa edozein kirol egiteagatik gertatzen diren istripuak ere barne hartzen ditu.

ASEGURUDUNA

18 urte baino gehiago eta 75 urte baino gutxiago dituzten pertsona fisikoak izango dira Asegurudunak, betiere Gaztedi Planaren titularraren Aita edo Ama badira. Halakorik ez badago, titularraren legezko ordezkaria (Tutore) izango da aseguruduna.

ONURADUNAK

Gaztedi Planaren titularrak, 18 urtetik beherakoak.

BERMATZEN DEN PRESTAZIOA

Aseguruduna HILTZEN bada, BERREHUN (200) EUROKO HILEKO ERRENTA bat ordainduko zaio onuradunari, ezbeharrak gertatzen denetik onuradunak 18 urte betetzen dituen arte.

Prestazioaren ordainketak aseguruaren baja ekarriko du berekin.

SALBUESPENAK

Polizaren Baldintza Orokorren 1. artikuluan jasota daude.

Aseguruak ez ditu barne hartzen ondoko arrazoiengatik gertatzen diren heriotzak:

a) Aseguru hau indarrean sartu aurretik gertatzen diren istripuen ondorio eta arrastoengatik, nahiz eta ondorio horiek aseguruaren indarraldian agertu.

Laburpen honen helburua informatzea baino ez da, eta, beraz, edozein gatazka edo auzi egotekotan, Polizaren Baldintza Orokor, Zehatz eta Berezieetan adierazitakoa aintzat hartuko da. Agiri horren ale bat Asegurudunen eskura egongo da Kutxabanken zentrolean.

Laburpen honek aurrekoen lekua hartuko du eta Kutxabank SAREN eta MAPFRE VIDA Giza Bizitzarekin loturiko Aseguru eta Berraseguruen Sozietate Anonimoaren arteko poliza kontratatuta dagoen bitartean egongo da indarrean. Bestalde, Kutxabankek poliza berritu ahal izango du, eta Aseguruaren Hartzailea den aldetik, ez ditu bere gain hartuko, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, Aseguru-etxeari dagozkion betebeharrak.

b) Kirol-federazioek edo antzeko erakundeek antolatzen dituzten lehiaketetan edo txapelketetan parte hartzeagatik, bai eta arriskutsuak diren kirolak edo jarduerak egiteagatik ere, honako hauek bereziki: automobilismoa, motoziklismoa, urpekaritza, alturako nabigazioa (bidaiariak garraiatzeko erabiltzen ez diren itsasontzietan), eskalada, espeleologia, ehiza, boxeo, parakaidismoa, aeroestazioa, hegaldi librea eta motor gabeko hegaldia.

c) Helikopteroak eta bidaiariak garraiatzeko baimenik ez duten aireko garraio bideak bidaiari edo tripulatzailerik gisa erabiltzeagatik.

d) Asegurudunak delituzko ekintza, apustu, erronka edo borroka batean parte-hartze aktiboa izateagatik, bidezko defentsa edo beharrian-egoera kasuetan izan ezik.

e) Mozkortuta edo droga, gai toxiko edo estupefazianteen eraginpean izandako istripuengatik. Mozkorkeria izango da odoleko alkohol maila istripua gertatzen den unean indarrean dauden Trafiko eta Zirkulazio legeek ezarritako muga baino handiagoa denean.

f) Polizak barne hartzen duen istripu baten ondorioz egiten ez diren ebakuntza kirurgikoei edo osasun-tratamenduei ekarritako lesio eta gaixotasunengatik, baita edozein eratako gaixotasunengatik (jatorri infekziosoa dutenak barne), bihotzekoengatik, istripu kardiobaskularrengatik, epilepsia-krisiengatik eta buru-ahalmenak galtzeagatik ere, istripu batek eragindakoak direnean izan ezik.

g) Ezbeharrak, ezohiko arriskuei buruzko araudiak halakotzat jotzen dituenak, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoak, aplikatu beharreko araudiari jarraikiz, kalte-ordaina ematen dio ala ez kontuan hartu gabe.

ERAGIN-DATA

Aseguruaren estaldura Gaztedi Plana kontratatzen den hurrengo egun naturaleko hogeita lau orduren buruan sartuko da indarrean.

Aseguru baliaduna izateko, Gaztedi Planak baldintza hauetakoren bat bete beharko du nahitaez:

- MILA (1.000) EUROKO edo hortik gorako saldoa edukitzea istripuaren aurreko egunean.

- MILA (1.000) EUROKO edo hortik gorako batez besteko saldoa edukitzea istripuaren aurreko egunean.